

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAGRANGO UDALA

#### Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zergaren 2021eko ordainagiria kobratzea

Zerga hauek 2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean ordaindu ahal izango direla jakinarazten da:

- Hiri ondasun higiezin gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezin gaineko zerga.

#### 1. Ordaintzeko epea:

A. Borondatezko epealdia: 2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era.

B. Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak adierazitako epeetan.

#### 2. Ordaintzeko tokia eta modua:

A. Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahalko dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

#### 3. Gomendioak:

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak aurrerantzean jakinarazpenak egiteko, Lagrango Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Lagran, 2021eko urriaren 8a

*Alkatea*

**JOSE MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ**